



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko ekainaren 10a

77. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, 934.015 euroko aparteko kreditu bat ematen duena Lurralde Kohesiorako Departamenturako (2. or.).
- Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarria ematekoa, Nafarroako 2014-2020 aldirako EGEF-FEDER programa operatiboari esleitutako REACT UE baliabideak eta 2021erako REACT funtsen aholkularitza teknikoa gauzatzeko (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdia, euskararen ezagupenaren baldintzarekin eta Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 934.015 euroko aparteko kreditu bat ematen duena Lurralde Kohesiorako Departamenturako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2021eko ekainaren 2an hartutako Erabakiaren bidez, Lurralde Kohesiorako Departamenturako 934.015 euroko aparteko kreditu bat ematen duen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea Lurralde Kohesiorako Departamenturako 934.015 euroko aparteko kreditu bat ematen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia (10-21/LEY-00003).

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, 934.015 euroko aparteko kreditu bat ematen duena Lurralde Kohesiorako Departamenturako

ATARIKOA

Lurralde Kohesiorako Departamentuko Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusian ikusi da jarduketa batzuk finantzatu behar direla Eloko eta Baztango udaletan, eta ez dagoela horretarako krediturik.

Lehenik, Baztango udalerraren ipar-mendebaldean dauden Aritzakun eta Urritzate auzoetan, non populazioa sakabanatutako baserrietan bizi den, haraneko hirigune nagusietatik aparte, agerikoa da komunikazio bideak ez direla egokiak, bi auzoak lotzen dituen bidea nagusiki zabor-legarrezkoa baita. Horri gehitu behar zaizkio baserrietara doazen adarrak, horiek ere zabor-legarrezkoak. Gaur egun Aritzakunen eta Urritzaten hogeita bi lagun bizi dira, adin desberdinetakoak eta, beraz, behar desberdinak sortzen dira bertan. Komunikazio bidez azaldutako egoerak, ordea, zailtzen du zerbitzu batzuk baliatzeko aukera, besteak beste oinarritzko zerbitzu publikoak. Sarbide nagusia traba bat da, eragin handia du bertakoen eguneroko bizimoduan eta ez du batere laguntzen jendea zona horretan bizitzen gelditu dadin. Inguru horietan daude Urritzate-Aritzakun-Gorramendiko KBEak eta Irubelakaskoa eta Itxusi natura-erreserbak. Aipatutako natura-eremu horien kudeaketaren zati bat artzaintzan eta gizakien ezinbesteko presentzian oinarritzen da, inguruaren erabilera jasangarria eginez.

Beraz, behar-beharrezkoa da Aritzakun eta Urritzateko komunikazio bide nagusian jarduketaren bat egitea.

Bigarrenik, NA-2420 errepidearen eta Eloko hirigunearen arteko bidegurutzearen trazadura zehaztugabea denez, ibilgailuen trafikoa sortzen da, sartu eta ateratzekoa, bide bazter berean T

itxurako bi bidegurutzetan, eta horrek mugimendu desberdinak elkar lotzen ditu, zalantzak sortuz eta sarbide horretan istripuetarako arriskua handituz. Bi bidegurutze horiek, gainera, loturik daude barrutik NA-2420 errepidearekiko paraleloa den beste adar batekin, eta horrek ere areagotzen ditu mugimenduen arazoak.

Proiektuko konponbideak 50 cm murrizten du errepidearen zeharkako sekzioa eta, beraz, Eloko egungo zeharbidearen zabalerako trantsizioa beharko da; kontuan hartu da A-21 autobidea ireki zenetik asko jaitsi dela bertatik pasatzen den trafikoa. Horrekin batera, hirigune historikoaren beste aldean gero eta gehiago dira etxebizitzetarako hirigintza jarduerak, eta beste arrazoi bat da ukitutako zeharbide tarteari hiri izaera handiagoa emateko, ahalik eta segurtasun handienarekin egin daitezkeen bi aldean arteko mugimenduak, motordun ibilgailuenak ez direnak bereziki.

Proiektu hau egiteko ezinbestekoa da Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia eta Toki Administrazioiko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusia koordinatuta aritzea, jarduketaren ukipen eremuetan biek dituztelako eskumenak, bideei eta tokiko gaiei dagozkienak, hurrenez hurren.

PARTIDA	ZENBATEKOA
210001 21300 7609 261634 Eloko zeharbidea	434.015 euro
210001 21300 7609 261635 Baztango bideak	500.000 euro

2. artikulua. Aparteko kredituaren finantzaketa.

Aparteko kreditu honen 934.015 euroko kopurua indarrean dagoen gastu aurrekontuko 220003 22200 2090 453202 partidan, "A-21 Pirinioetako

Toki Administrazioiko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusian ez dago jarduketa horiek gauzatzeko finantzaketarik.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta krediturik ez badago, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat ematekoa. Bigarren paragrafoan xedatzen du aparteko kreditu finantzatzen ahal dela edozein gastu programatan erabilgarri dagoen kredituarekin.

Era berean, foru lege honek, partida izendunak sortuz, udal horiei laguntzak zuzenean emateko gaitzen du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan xedatutakoarekin bat.

1. artikulua. Aparteko kreditu bat ematea.

2021eko ekitaldian 934.015 euroko kreditu bat ematen da, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren beharrak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da:

Autobiaren kanona" izenekoan, dagoen kreditu erabilgarriaren kargura finantzatzeko da.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarria ematekoa, Nafarroako 2014-2020 aldirako EGEF-FEDER programa operatiboari esleitutako REACT UE baliabideak eta 2021erako REACT funtsen aholkularitza teknikoa gauzatzeko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2021eko ekainaren 2an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentuari foru lege proiektu bat igorri dio, kreditu-gehigarria ematekoa, Nafarroako 2014-2020 aldirako EGEF-FEDER programa operatiboari esleitutako REACT UE baliabideak eta 2021erako REACT funtsen aholkularitza teknikoa gauzatzeko.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea foru lege proiektu horren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarria ematekoa, Nafarroako 2014-2020 aldirako EGEF-FEDER programa operatiboari esleitutako REACT UE baliabideak eta 2021erako REACT funtsen aholkularitza teknikoa gauzatzeko

HITZAURREA

Nafarroari esleitutako REACT UE funtsak berekin ekarri dute 2014-2020 aldirako EGEF-FEDER eta EGFko programa operatiboak berriz programatzea.

2014-2020 aldirako EGEF-FEDER programa operatiboa berriz programatzeko erabakia aipatu-

tako programaren jarraipen batzordeak hartu zuen maiatzaren 10ean.

Gainera, Nafarroako Gobernuak unitate batzuek adierazi dute baliabide batzuk handitu behar direla, hala langileenak nola gastu arruntekoa eta inbertsioetakoak, REACT UE funtsak berekin dakarten gastua zuzen gauzatu nahi bada.

Birprogramazio honek berekin dakartzan proiektuak eta aholkularitza teknikorako baliabide gehigarrien hornikuntza gauzatzen hasteko, komenigarria da 2021eko aurrekontuan kreditu-gehigarri bat onestea.

Jarduketa horiek gauzatzeko eskumena duten zuzendaritza nagusietan ez dago jarduketa horiek egiteko finantzaketarik.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua 1. puntuak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta dagoen kreditua aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko duela Nafarroako Parlamentura, kreditu-gehigarri bat ematekoa.

Artikulu horren 2. puntuak ezartzen du, halaber, kreditu-gehigarri hori finantzatzeko dela diruzaintzan gastu orokorretarako dagoen gerakinen kargura, hura positiboa denean.

REACT UE proiektuen jarduketak EGEF-FEDER eta EGF kofinantzatuko dituzte % 100ean, kofinantzaketa hori gauzatzeko da gas-tua egin eta ziurtatu ondoren.

1. artikulua. Kreditu-gehigarria ematea.

2.794.504 euroko kreditu-gehigarria ematen da, 2021eko ekitaldian Nafarroako 2014-2020 aldirako EGEF-FEDER programa operatiboari esleitutako REACT UE baliabideak eta 2021erako REACT funtsen aholkularitza teknikoa gauzatzeko.

Kreditu-gehigarri hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da eta zenbateko hauek izanen ditu:

PARTIDAREN KODEAK	PARTIDAREN IZENA	ZENBATEKOA
810003 81430 2276 146105	REACT NAEX Digital. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	104.544,00
810007 81200 7400 458104	REACT. CEINI transferentzia. Lekarozko mintegia. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	100.000,00
810007 81200 6094 458104	REACT NASUVINSARI enkargua Indusland. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	100.000,00
810007 81200 2276 458102	REACT Azpiegitura industrialak planifikatzeko lanak. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	450.000,00
330000 33100 6020 921100	(E) Artziko jauregiaren eta Nagoreko urtegiaren inguruak egokitzeko lanak berraktibatzeke plana	170.000,00
410001 41800 6020 325111	REACT Irigarritasun proiektua zenbait ikastetxetan. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	50.000,00
410001 41800 6020 325110	REACT Aireztapen automatikorako proiektua 5 ikastetxetan. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	65.000,00
740001 74100 6092 452103	REACT Uholdeen aurkako defentsak Faltzesen. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	70.000,00
G20001 G2100 7819 467307	REACT. Automozioa eta mekatronika: NAVEAC Drive-LABerako inbertsioa. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	888.750,00
G20001 G2100 4819 467311	REACT Energia berriztagarriak: laborategia eta bioerregai aurreratuen garapena. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	165.000,00
G20001 G2100 7819 467306	REACT Energia berriztagarriak: laborategirako eta bioerregai aurreratuen garapenerako inbertsioa. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	505.000,00
810003 81410 2020 146100	REACT Bulegoen alokairua. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	5.000,00
810003 81410 2020 146102	REACT Bulegoen alokairua. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	2.500,00
810003 81410 6060 145100	REACT Ekipo informatikoak. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	8.666,67
810003 81410 6060 145102	REACT Ekipo informatikoak. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	4.333,33
810003 81410 6050 145100	REACT Eraikinetarako altzariak eta ekipamendua, eta obrak. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	20.000,00
810003 81410 6050 145102	REACT Eraikinetarako altzariak eta ekipamendua, eta obrak. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20	10.000,00
810003 81410 1220 146100	REACT Tarteko erakunderako aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak. EGEF-FEDER programa operatiboa 14-20 EGF programa operatiboa 14-20	37.190,00
110001 11400 1220 931200	REACT Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	16.370,00
113001 12200 1220 931400	REACT Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	22.150,00
GUZTIRA		2.794.504,00

2. artikulua. Kreditu-gehigarriaren finantzaketa.

2.794.504 euroko kreditu-gehigarri hau finantzatuko da 2021eko diru-sarreraren aurrekontuko "Gastu orokorretako diruzaintza-gerakina" izeneko 113002 12100 8700 000002 partidaren kargura.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute foru lege proposamen bat, zeinaren bitartez aldatzen baita 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa, eta presako prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute (10-21/PRO-00011).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin foru lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

2. Aipatu foru lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

Ia hiru urte eman direnean Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aplikatzen, horren edukian aldaketa eta zuzenketa batzuk egin beharra nabari da, neurri handiagoan betetze aldera Kontratuei buruzko Foru Legeak berak 2. artikuluan jasotzen dituen eraginkortasun eta efizientzia, proportzionaltasun, gardentasun eta osotasun printzipioak.

Horrela, beharrezko irizten zaio testu osoan zuzenketa teknikoak egiteari, izapidetze elektronikoa nagusitu den ingurune batean balio-ekarpenik egiten ez duten izapideak bertan behera utziz prozeduren izapidetzea azkartzeko; gaur egun interpretazioa egitera behartzen duten zertzeladak argitzeko; aurreikuspen bikoiztuak ezabatze; edo espediente guztiei aplikatzekoak diren betebeharrak eta horien salbuespenak egokiro eta proportzionalki ezartzeko.

Azkartze-neurriak sozietate publikoetarako ere ezartzen dira, hala nola bertan behera uztea entitatearen arduradun den Administrazioaren txostena, kontratua sortaka zatitzen ez den kasuetan.

Ildo horretan bertan, proposatzen da lehiaren defentsarako agintaritzari aurretiazko txostena eskatu behararen ordez ezar dadila hari jakinarazteko betebeharra, lehia-murritzapenagatik kontratua sortaka ez zatitzearen kasuan.

Halaber sinpletzen da lehia ezinezkoa den prozeduren izapidetzea, laburtu egiten da jakinarazpen elektronikoen kasuan kontratuen eraginkortasuna eteteko epea, bertan behera uzten da eskaintzen irekitzearen eguna Atarian argitaratzeko betebeharra, eta, gardentasuna hobetzea

xede, kontratu baten adjudikazioaren iragarkia argitaratzeko epea murrizten da.

Gaur egun interpretazioa behar duten aferak argitzeari dagokionez, besteak beste ezartzen da kontratazio-mahaiak osatzen dituzten pertsonen arteko eginkizun-banaketa, kide guztien elkartze fisiko edo telematikorik ez dagoenean; lizitazio-eta adjudikazio-zenbatekoak kalkulatzeko modua zehazten da prezio unitariotan egiten diren kontratuetan; arautu egiten da pleguetan edo adjudikazio-hartzailearen eskaintzan jasotako beste estipulazio gehigarriak kontratuan jasotzeko modua, lehia-printzipioa urratzen ez denean; kontratazko baldintzak frogatu beharreko unea eta modua argitzeko aldaketa batzuk jasotzen dira; eta beste kontratu batzuetako kaudimenak aprobetxatzeko modua arautzen da.

Horrez gain, transposizio-oker bat zuzentzen da, zerbitzu-emakidei aplikatzeko den Europako atalaseari dagokiona; transposizio zehatzagoa egiten da Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen aplikazioa baztertzen deneko kasu batzuei buruz; eta ospitale-erabilerako medikamentuen eskuratzea halako moduz arautzen da non baldintza orokorren ezarpenerako sistema bat finkatzen baita, beherapenak ezartzeko nahiz ez ezartzeko aukera emanik Administrazioak Osasun Sistema Nazionalaren kargurako finantzaketarako ezarritako prezioan, irekita daudenak hornitzaile-multzo bati, eta modua egonda beste eragile ekonomiko batzuek bat egiteko geroago, aintzat harturik Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2016ko ekainaren 2ko epai batean ezarritako doktrina (Dr. Falk Pharma GmbH-k DAK-Gesundheit-en aurka, C-410/14 afera, 41 eta 42. puntuak).

Testuinguru horretan, eta efizientziaren eta kudeaketa sanitario egokiaren arteko erlaziorik onena zaintzearen, medikamentu-eskurapeneko sistema bat arautzen da, halakoa dena non lizitazio publikoa egin beharrik ez dagoen, jadanik badagoenean administrazio-prozedura bitartez zehazturiko prezio bat, administrazioaren eta farmazia-hornitzailearen artean negoziatua, eta are, kasu batzuetan, arrisku partekatuko akordioak edo gastu-mugarakoak, atxiki egiten direnak eta, beraz, eskuratzearen baldintzak arautzen dituztenak, eta hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren erosketei aplikatuko zaie.

Artikulu bakarra. Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzea.

Bat. Zioen azalpenari paragrafo berri bat gehitzen zaio

Ospitale-erabilerako medikamentuen eskuratzea arautzen da eta baldintza orokorren ezarpe-

nerako sistema bat finkatzen da, beherapenak ezartzeko nahiz ez ezartzeko aukera emanik Administrazioak Osasun Sistema Nazionalaren kargurako finantzaketarako ezarritako prezioan, irekita daudenak hornitzaile-multzo bati, eta modua egonda beste eragile ekonomiko batzuek bat egiteko geroago, aintzat harturik Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2016ko ekainaren 2ko epai batean ezarritako doktrina (Dr. Falk Pharma GmbH-k DAK-Gesundheit-en aurka, C-410/14 afera, 41 eta 42. puntuak).

Testuinguru horretan, eta efizientziaren eta kudeaketa sanitario egokiaren arteko erlaziorik onena zaintzearen, medikamentu-eskurapeneko sistema bat arautzen da, halakoa dena non lizitazio publikoa egin beharrik ez dagoen, jadanik badagoenean administrazio-prozedura bitartez zehazturiko prezio bat, administrazioaren eta farmazia-hornitzailearen artean negoziatua, eta are, kasu batzuetan, arrisku partekatuko akordioak edo gastu-mugarakoak, atxiki egiten direnak eta, beraz, eskuratzearen baldintzak arautzen dituztenak, eta hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren erosketei aplikatuko zaie.

Bi. Hiru apartatu berri gehitzen zaizkio 7. artikularen 1. apartatuari. Hona testua:

«I) Honako zerbitzu juridiko hauek:

Lehen a. Abokatu bat bezeroaren legeko ordezkari aritzea, Kontseiluaren 77/249/EEE Zuzentarauko 1. artikuluko zentzuarekin, Estatu kide batean edo hirugarren herrialde batean edo adiskidetze- nahiz arbitraje-erakunde batean egintza arbitraje edo adiskidetze batean, edo Estatu kide bateko nahiz hirugarren herrialde bateko jurisdikzio-organotako prozedura judicial batean edo agintari publikoekikoan, edo nazioarteko jurisdikzio-organotako erakundeetan.

Bigarrena. Aholkularitza juridikoa ematea, aurreko apartatuan aipaturiko prozedura baterako prestalan bezala edo aholkagai den gaia prozedura horien xede izanen dela adierazten duen zantzu zehatza eta probabilitate handia dagoenean, baldin eta aholkularitza-lana 77/249/EEE Zuzentarauko 1. artikularen zentzuan eskaintzen badu abokatu batek.

Hirugarrena. Dokumentu-ziurtatze eta autentifikaziorako zerbitzuak, notario batek eman beharrekoak.

II) Medikamentu-erosketa publikoko akordioak, foru lege honen hogeita batgarren xedapen gehigarri jarraikiz.

m) 4.1 artikuluko b), c), d) edo e) letretan zerrendaturiko entitateetako batek sinaturiko

kontratuak, kontratu-sinatze horien helburua izan denean eragile ekonomiko edo kontratista izaera-ekin parte hartu dueneko kontratu publiko baten kariaz bere gain hartu dituen betebeharrei erantzutea».

Hiru. 14. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«14. artikulua. Jardute-gaitasuna frogatzea».

Lau. 14. artikuluko 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute aurrerantzean:

«1. Adjudikazio-hartzaile izateko proposatua suertatuko den pertsonak bere jardute-gaitasuna eta ordezkari frogatu beharko ditu foru lege honek ezarritakoari jarraikiz.

2. Berariazko legediak hala ezartzen duen kasuetan, zilegi izanen da lizitatuzaileari eskatzea frogatzea dezala inskribatuta dagoela lanbide- edo merkataritza-erregistro batean, edo kontratuko prestazio den jardueran aritzeko gaikuntza ematen dion beste edozein zertzelada, pertsona ezarritakoaren Estatuko araudiari jarraikiz».

Bost. 16. artikulua izenburua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«16. artikulua. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa».

Sei. 16.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«1. Adjudikazio-hartzaile izateko proposatua izanen den pertsona behartuta egonen da kontratua exekutatzeko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa duela frogatzera. Kaudimen ekonomiko eta finantzariotzat ulertuko da enpresaren egoera ekonomiko eta finantzario egokia, halakoa non izaera horietako ezin gorabeherak ez duen arriskuan jarriko kontratuaren behar bezalako exekuzioa. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren maila kontratu bakoitzean zehaztuko da, eta kontratuaren lizitazioak duen zenbatekoaren arabera eta proportzionala izanen da».

Zazpi. 16.2.c) artikulua bigarren paragrafoa aldatzen da. Testu hau izanen du:

«c) Negozio bolumen orokorrari buruzko adierazpena, eta, hala behar denean, kontratuaren xedearan antzekoa den jardueraren arloko negozio bolumenari buruzkoa, eskueran dauden azken hiru ekitaldietakoa gehienez ere, lizitatu behar duenaren sorrera-egunaren edo jardueren hasiera-egunaren arabera, negozio bolumen horren erreferentziak eskura dauden heinean.

Urteko gutxienezko negozio bolumen exigitua ez da handiagoa izanen kontratuaren balio

zenbatetsia halako bat eta erdi baino, salbu eta behar bezala justifikatutako kasuetan, hala nola obren, zerbitzuen edo horniduren izaerarekin lotutako arrisku bereziekin zerikusia dutenetan. Kasu horretan, baldintza hori ezartzearen arrazoia nagusiak adieraziko dira.

Kontratu bat sortetan banatzen denean, irizpide hau sorta bakoitzari aplikatuko zaio. Hala ere, kontratazio-organoak zilegi izanen du sorta-multzak erreferentzia gisa hartuz ezartzea lizitatuzaileei eskatutako urteko gutxienezko negozio-bolumena, baldin eta adjudikazio-hartzaileari aldi berean exekutatu beharreko zenbait sorta adjudikatutako bazez».

Zortzi. 16.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«3. Kontratuei buruzko iragarkietan, pleguetan edo prozedura negoziatuak gonbidapenetan, kaudimena frogatzeko zein bide erabiliko diren adieraziko da, aurreko apartatuan aipatutakoen artean».

Bederatzi. 17. artikulua izenburua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«17. artikulua. Kaudimen tekniko edo profesionala».

Hamar. 17.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«1. Adjudikazio-hartzaile izateko proposatua izanen den pertsona behartuta egonen da kontratua exekutatzeko kaudimen tekniko edo profesionala duela frogatzera. Kaudimen tekniko edo profesionaltzat jotzen da kontratua behar bezala exekutatzeko behar den gaikuntza tekniko edo profesionala, dela aurretik antzeko kontratuetan aritzearen esperientzia izatearen ondoriozkoa, dela behar adina langile eta bitarteko tekniko edukitzearen ondoriozkoa. Kaudimen tekniko edo profesionalaren maila kontratu bakoitzean zehaztuko da, eta kontrataturiko prestazioaren ezaugarrien arabera eta proportzionala izanen da».

Hamaika. 17.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«3. Kontratuei buruzko iragarkietan, pleguetan edo prozedura negoziatuak gonbidapenetan, kaudimena frogatzeko zein bide erabiliko diren adieraziko da, aurreko apartatuan aipatutakoen artean».

Hamabi. 18. artikuluko hirugarren paragrafoa kentzen da.

Hamahiru. 18. bis artikulua berria gehitzen da. Testu hau izanen du:

«18. bis artikulua. Kontratatzeke gaitasuna frogatzeko dokumentazioaren berrerabilera.

Gaitasunak, ordezkaritza, kaudimena eta enpresa- edo lanbide-gaikuntza frogatzen dituen dokumentazioa, kontratazio-organoak jada eskueran daukana lizitatzailleak aurkeztu zuelako adjudikazio-hartzaile suertatu zen lehenagoko prozedura batean, berrerabili ahal izanen da, baldin eta frogaturiko inguruabarrak ez badira aldatu eta lehenagoko prozeduraren adjudikaziotik hiru urte ez badira igaro.

Dokumentazioaren berrerabiltzea kontratazio-organo bakoitzaren esparruaren barrenean aplikatu ahalko da. Horretarako eskaera eginen du lizitatzailleak, eskaintza edo parte-hartze eskaera aurkezten duen unean, adieraziz zein den adjudikazio-hartzaile suertatu zeneko lehenagoko prozedura, zeinetako dokumentazioa erabili nahi duen, eta halaber azalduz indarrean dirautela frogaturiko baldintzek.

Berrerabili beharreko dokumentazioa aztertu ondoren, okerrekoztat edo ez-askitzat jotzen bada, eskatuko zaio zuzendu dezan, foru lege honen 51.2 artikulua ezarritakoari jarraikiz».

Hamalau. 21. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«1. Exigitzen denean erakunde independenteek jaulkitako ziurtagiriak aurkez daitezela, interesdunak kalitatearen ziurtapenerako arau jakin batzuk betetzen dituela frogatzekoak, erreferentzia egin beharko diete unean-unean indarrean dauden ziurtapenari buruzko europar arauetan oinarrituriko kalitate-ziurtapeneko sistemei.

2. Betiere onartuko dira Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetan ezarritako erakunde baimenduek jaulkitako ziurtagiri baliokideak. Halaber, kalitatea ziurtatzeko neurri baliokideei buruzko beste froga batzuk onartuko zaizkie lizitatzaille izanen diren pertsoneri, ziurtagiri horiek eskuratu ezin badituzte edo ezarritako epean halakorik lortzeko inolako aukerarik ez badute».

Hamabost. 24.4.a) artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«a) Kontratazio-organoak faltsutasunaren berri izan zuen egunetik, lizitatzailleak aitortzeagatik edo agintari eskudun batek behin betikoz horrela deklaratu izateagatik, edo kasuko informazioa Lizitatzaileren Borondatezko Erregistroari jakinarazi beharko zitzaion egunetik, 22.1 artikuluko i) letraren kasuan».

Hamasei. 39.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«2. Prestazio bat edo batzuk, elkarrekin zerikusia dutenak, banatuta erabili edo aprobetxatzeko modukoak badira, edo xedearen izaerak hala eskatzen badu, zilegi izanen da halako bakoitzaren banakako kontratazioa aurreikustea, prozedura beraren barrenean sortak antolatuz».

Hamazazpi. 39.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«3. Kontratu baten xedea ezin izanen da zati-katu haren zenbatekoa murrizteko eta, halatan, publizitate baldintzak edo jarraitu beharreko adjudikazio prozedura saihesteko».

Hemezortzi. 41.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«2. Sortakako banaketa egiten denean, sorta edo prestazio bereizi bakoitzaren adjudikazioari aplikatu behar zaizkion prozedura- eta publizitate-arauak multzoaren balio metatuaren arabera zehaztuko dira, salbu eta 7. artikuluan aurreikusitako salbuespenen bat gertatzen denean».

Hemeretzi. 41.4.a) artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«a) Banaketak lehia murriztearen arriskua eragin dezakeela.

Kasu hori gertatzen bada, kontratazio-organoak lehiaren defentsarako agintaritzari horren berri eman beharko dio».

Hogei. 41.4.b) artikuluko azken paragrafoa kentzen da.

Hogeita bat. 43.3. artikuluari paragrafo berri bat eransten zaio. Testu hau izanen du:

«Guztizko zenbatekoa lizitazio-unean zehaztasunez finkatuta egon gabe prezio unitariotan egiten diren kontratuaren, lizitazioaren zenbatekoa emaitza gisa lortuko da gehieneko unitate-prezioa biderkatuz kontratuaren hasierako aldirako kalkulaturiko unitate-kopuruarekin, bazter utzirik aldaketak, aukerak eta luzapenak. Kasu honetan, adjudikazio-zenbatekotzat joko da emaitza gisa lorturikoa eskainitako unitate-prezioa biderkatuz aurreikusitako kontsumo-unitateen kopuruarekin, kopuru hori kalkulaturik kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzearren, bazter utzirik kontratuaren balizko luzapenak eta aldaketa edo aukerak».

Hogeita bi. 44.1. artikuluari apartatu berri bat gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

«ñ) Adjudikazio-hartzaileak kontratuaren xede diren prestazioei dagozkien jarduerak, lanbideek edo profesioek dituzten printzipioak, arauak eta kanon etikoak beteko ditu, une oro inpartzialtasunez, fede onez eta bere profesio edo gremioaren kode deontologikoaren arabera jardunez. Kontratu-prozeduraren edozein fasetan ezaguturiko informazio konfidentziala ez du erabiliko edo nolako abantaila edo onura bat zuzenean nahiz zeharka lortzeko, ez bere interes propioan ez eta hirugarren pertsonenean. Bereziki zainduko du pleguetan exekuzio-baldintza berezi gisa sartuak izan diren gizarte- edo ingurumen-klausulak behar bezala betetzen direla, eta kontratua beteko du konprometiturik bere lana lagungarri izatea interes orokorrari erantzuteko, eta kontratu-aldaketa eragitea ekidinez, aldaketa hori legez aurreikusitako kasuetan baizik ezin baita egin».

Hogeita hiru. 44.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«2. Zilegi izanen da kontratuan estipulazio gehigarriak jasotzea, pleguetan edo adjudikazio-hartzailearen eskaintzan bildutakoez gain, baldin eta bi alderdiak ados egon eta estipulazio horiek ez badute adjudikazio-hartzailearentzako eskubide gehigarriak ezartzen, ez eta kontratuaren baldintzak halako moduan aldatzen ere non, gainerako interesdunek ezagutuak izanez gero, haiek eginiko eskaintzaren edo haiek prozeduran izandako interesaren aldaketa eragin ahalko baituzten. Baldintza horiek ez badira betetzen, erabat deuseztat eta jarrigabetzat joko da klausula, kontratistarentzako inolako konpentsaziorako eskubiderik gabe».

Hogeita lau. 45. artikulua 4. apartatua kentzen da.

Hogeita bost. 49.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«3. Lizitazioan interesa dutenek Kontratazio Atariaren bidez lortuko dute pleguei buruzko informazio gehigarria eta gainerako dokumentazio osagarria, eskatu eta hiru eguneko epean, salbu eta lizitazioa arautzen duten pleguetan beste epe bat ezartzen bada. Eskaintzak aurkezteko epearen azken 3 egunen barruan eginiko informazio-eskaera batek ez du behartuko epe hori luztzera».

Hogeita sei. 50. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«1. Kontratazio Mahaia kide anitzeko organo independentea da, eta haren kideak kontratazio-

organoaren mendeko langile izanen dira. Horieta batek zuzenbidean lizentziatua edo graduatua izan beharko du eta idazkaritza-zereginak beteko ditu; halaber egonen dira kasuko arloan eskudun diren langile teknikoak, eta kontrol ekonomikoaren eginkizuna esleituta daukaten langileak.

Salbuespen gisa, eta espedientean justifikatu ondoren, administratziotik kanpoko pertsonak mahaikide tekniko izendatzen ahalko dira, kontratuko jardueraren sektorean esperientzia dutenak.

Halaber, teknikari horiek aholkulari izendatzen ahalko dira, eta hizpidearekin baina botorik gabe esku hartzen ahalko dute.

2. Mahaiko kideen hautaketa Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu beharko da. Hautaketa iraunkorra izan daiteke edo berariazkoa, kontratu bat edo gehiago adjudikatzeko. Kontratazio Mahaia osatzen duten pertsonen administrazio-prozedurari buruzko legedian ezarritako abstentzio- edo errekusazio-kausak aplikatuko zaizkie, eta prozedura bakoitzean espresuki adierazi beharko dute ez dagoela interes finantzario, ekonomiko edo pertsonalekin loturiko kausarik, haien inpartzialtasuna eta independentzia kontratazio-prozeduran kolokan jartzen duenik.

3. Kontratazio Mahaia bere funtzioak bete ahalko ditu dagozkion eginkizunak mahaikideen artean banatuz, haien espezializazio teknikoaren eta ezagutzen arabera, halako moduz non eginkizunak betetzeko ez baita beharrezkoa izanen Mahaia osatzen duten pertsona guztien edo batzuen elkarretaratze fisiko edo telematikoa. Mahaiburuaren funtzioa izanen da mahaikide bati edo batzuei eginkizunak esleitzea, horiei guztiei jakinarazirik erabaki hori.

4. Mahaikide batek edo batzuek banaka egini-ko jarduketa guztiak mahaikide-multzo guztiaren irizpenari aurkeztuko zaizkie, eta haiek onespena eman beharko diete, batera nahiz bata bestearen ondoren. Kontratazio Mahaia osatzen duten pertsonen bermatu egiten zaie beren iritzia emateko eskubidea, gehiengoarenaren aurkakoa denean, eta aurkako iritzi hori modu arrazoituan aktan jaso izatekoa, eta, halaber, Mahaiburuari eskatzeak bilera presentzial nahiz telematikorako deialdia egin dezan, non kide anitzeko organoek dagozkien parte-hartze erregelak aplikatuko baitira, kasuan kasuko aferak tratatzeko.

5. Kontratu publikoak adjudikatzeko kontratazio mahai bat osatu beharko da 60.000 euro baino gehiagoko balio zenbatetsia dutenean, zerbitzu eta hornidura kontratuen kasuan, eta 200.000 euro baino gehiagoko dutenean, obra kontratuen kasuan.

Emakida kontratuak adjudikatzeko, beti nahitaezkoa izanen da kontratazio mahai bat eratzea.

Balio zenbatetsia, BEZik gabe, 10.000.000 euro baino gehiagokoa duten kontratuetan, kontratazio mahaiaren egonen da, aurrekoen gainera, Nafarroako Kontratazio Publikorako Batzordeak hautatutako ordezkari bat, kontratazio organoak eskatuta».

Hogeita zazpi. 51. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

1. Kontratazio Mahaiaren funtzioak edo, kasua bada, kontratuaren unitate kudeatzailearenak, honakoak dira:

a) Nortasunaren eta, halakorik denean, ordezkartzaren egiaztagiriak kalifikatzea, bai eta kontratatu ezin izateko arrazoiei dagozkien agiriak ere.

b) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala balioestea.

c) Hautagaitza aurkeztu duten parte-hartzaileak onartu eta, kasua bada, aukeratzea, hori aurreikusten den prozeduretan, eta eskaintza aurkezteko gonbidapena egitea.

d) Eskaintza teknikoaren balorazioa.

e) Eskaintzak irekitzea eta aurkezturiko informazioari dagokionez gertatzen diren gorabehera guztiak ebaztea.

f) Eskaintzaren bat baxuegia ote den baloratzea, eta hori onartzea edo baztertzea, foru lege honetan ezarritako prozedura izapidetu ondoren.

g) Adjudikazio-hartzaile izateko proposatua izanen den pertsonari eskatzea pleguaren arabera beharrezkoa den dokumentazioa.

h) Kontratua adjudikatzeko proposamena igortzea kontratazio organoari.

i) Proposamenak kalifikatu eta balioesteko behar diren eginkizun guztiak, bai eta adjudikazio-proposamena egiteko behar direnak eta legeetan esleitzen zaizkion gainerakoak ere.

2. Kontratazio Mahaiak edo, kasua bada, unitate kudeatzaileak akats zuzengarriak atzematen baditu nortasuna, gaitasuna edo kaudimena frogatzeko dokumentazioan, edo ilunak eskaintzaren edukian, berdintasun- eta gardentasun-printzipioei eragin gabe argitzeko modukoak direnak, horiek zuzentzeko bost eguneko gutxieneko epea emanen dio ukitutako pertsonari, eta ohartaraziko dio ezen, hala egin ezean, ez dela onartuko.

3. Kontratazio Mahaiak edo, kasua bada, unitate kudeatzaileak, zilegi izanen dute, beren propo-

samena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituzten txosten guztiak eskatzea, kontratuaren xedearekin zerikusia dutenak».

Hogeita zortzi. 53.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«1. Proposamenek, zeinetan sartuta egonen baitira bai eskaintza teknikoa, egonez gero, bai eskaintza ekonomikoa, bat etorri beharko dute lizitazioa arautzen duten pleguekin, eta proposamen-aurkezteak esan nahi du haiek inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe onartzen direla».

Hogeita bederatz. 53.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«2. Proposamenak isilekoak izanen dira ireki arte, horrek ezertan galarazi gabe enkante elektronikoko batean, negoziazio batean edo lehia-elkarrizketa batean parte hartzen dutenei eman behar zaien informazioa».

Hogeita hamar. 55.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«1. Proposamenei erantzukizunpeko adierazpen bat erantsi beharko zaie, lizitatuak sinatua. Adierazpen horren edukia ez da isilekoa izanen, eta balio-iritziak aplikatuz balioetsiriko dokumentazioari erantsiko zaio, halakorik egonez gero, edo formula-aplikazioaren bitartez balioestekoa den eskaintza osatzen duen dokumentazioarik baldin eta adjudikazio-irizpide guztiak mota horretakoak badira. Adierazpenean lizitatuak buruz zehaztu beharko da:

a) Gaitasun juridikoari eta jarduteko gaitasunari dagozkien baldintzak betetzen dituela eta, hala bada, sinatzaileak baduela behar den ordezkari izaera.

b) Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren arloko nahitaezko baldintzak betetzen dituela.

c) Kontratatzeko debekuaren egoeran ez dagoela. Adierazpen horretan halaber esanen da indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betetzea egunean duela.

d) Kontratuaren xede diren prestazioak exekutatzeko gainerako lege baldintzak betetzen dituela, bai eta kontratazio pleguetan ezarritakoak ere.

e) Espainiako edozein ordenatuko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela gorabehera guztietarako, legokiokoen jurisdikzio-foruari uko eginik, atzerriko enpresen kasuan.

f) Beste entitate batzuen idatzizko konpromisoa daukala bere bitartekoak atxikitzeaz edo bere baliabideak erabiltzeaz, hala denean».

Hogeita hamaika. 55. artikuluari apartatu berri bat gehitzen zaio, testu honekin:

«9. Salbuespenez, eta justifikazio-txostenean zehaztuta egon beharko diren arrazoiengatik, zilegi izanen da interesdun guztiei eskatzea artikulua honen 1. apartatuan jasotako zertzeladetatik edozein froga dezatela, eskaintzak balioesteari ekin baino lehenagoko urrats gisa, edo lizitatuileetako edozeini, prozeduran zehar. Kasu horretan, erabakia hartzea Kontratazio Mahaiari dagokio edo, kasua bada, unitate kudeatzaileari, eta arrazoiak idatziz adierazi beharko dira».

Hogeita hamabi. 59.2. artikuluko e) apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«e) Adjudikazio-hartzaile izateko proposatua izanen den pertsonak kontrataziorako baldintzak egiazki betetzen dituela frogatzeko aurkeztu beharko duen dokumentazioa».

Hogeita hamahiru. 70.3. artikuluari bi apartatu berri gehitzen zaizkio, testu honekin:

«d) Prezioan atxikipena eginez, pleguak hori espresuki ezartzen badu. Kasu horretan, pleguak adieraziko du ea atxikipena osoki aplikatuko den lehen eta ondorengo ordainketetan, beharrezkoa den kopururaino iritsi arte, edo faktura guztietan aldizkako atxikipena proportzionalki eginez.

e) Aurrekoen konbinazio baten bidez, pleguak ezartzen dituen baldintzetan».

Hogeita hamalau. 75. artikuluari 4. apartatua gehitzen zaio, testu honekin:

«4. Espedientearen izaeragatik beragatik edo, salbuespenez, espedientearen inguruabarregatik lehia posible ez den kasuetan, nahikoa izanen da justifikazio-txostenean aipatzea artikulua honetako zein apartatutan funtsatzen den prozedura negoziatua, eta zer premiari erantzuten dion kontratu-adjudikazioak.

Espedientearen aipatu beharko dira kontratu-exekuzioaren baldintzak, bai eta adjudikazio-hartzaile den pertsonak idatziz emandako onarpena ere.

Kasu horietan, eskaintza jasotzeko ez da beharrezkoa izanen kontratazio-mahaiaren parte hartzea, ez eta Nafarroako Lizitazio Elektronikoa-ren Plataforma erabiltzea ere, eta prozeduraren izapidetzeak bete beharko duen formalitate bakarra da kontratazio-organoaren arauen arabera adjudikazio-egintza formal bat egitea».

Hogeita hamabost. 80.2. artikulua bigarren paragrafoa kentzen da.

Hogeita hamasei. 80.5. artikulua kentzen da.

Hogeita hamazazpi. 81. artikuluari 3. apartatu berri bat gehitzen zaio, testu honekin:

«3. Horniduren eta segidako prestazioko zerbitzuen kasuan, prozedura honen erabilera posible izanen da, bakarrik, baldin balio zenbatetsia, hurrengo 48 hilabeteetarako aurreikusitako gastua aintzat harturik, ez bada handiagoa artikulua honen lehen puntuan adierazitako kantitatea baino».

Hogeita hemezortzi. 88.2.d) artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«d) Adjudikatu gabe utzitako kontratuak eta deuseztaturiko lizitazio eta adjudikazioak, horietarako arrazoiak adierazita».

Hogeita hemeretzi. 89.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«1. Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu beharko da, Europar Batasunak ezarritako prozedura eta eredu ofizialei jarraituz, kontratu bat, esparru-akordio bat edo erosketasistema dinamiko bat egiteko, baldin eta haren balio zenbatetsiak ondoko gutxieneko adinakoa edo horiek baino gehiagokoak badira:

a) 214.000 euro, hornidura eta zerbitzu kontratuetan, salbu eta apartatu honen c) letran jasotakoak.

b) 5.350.000 euro, obra kontratueterako eta herri-lanen emakidarako eta zerbitzu-emakidarako kontratueterako.

c) 750.000 euro, foru lege honetako 37. artikuluan aipatzen diren gizarte zerbitzuen kontratueterako».

Berrogei. 95.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«2. Kontratu publikoak zenbateko txikiko kontratuen araubide berezia eta beren izaeragatik lizitatuile bakar bat egon daitekeeneko foru lege honen 75.1. artikuluko kasuetako bat ez den beste prozedura batez adjudikatu behar direnean, horien lizitazioa Nafarroako Lizitazio Elektronikoa-ren Plataformaren bidez egingen da».

Berrogeita bat. 95.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«3. Nafarroako lizitazio elektronikoa-ren plataforman aurkeztuko da abian diren lizitazioei dagokien dokumentazio guztia, dokumentazioa ireki arteko konfidentzialtasun-bermearekin; horrez gain, kontratuaren unitate kudeatzailearekin edo,

kasua bada, Kontratazio Mahaiarekin kontaktatu da, prozedura barnean eskatutako eskaintza-zuzenketak egin edo eskaintzari buruzko argibideak emate aldera, eta eskaintzak irekiko dira, prozedurak horretara behartzen duenean. Kontratazio publikoko ondorio guztietarako, foru lege honen aplikaziopean dauden entitate guztien egoitza elektronikoa eta erregistro laguntzaile bezala tankeratuko da».

Berrogeita bi. 96. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«Eskaintzak aurkezteko epea amaituta, proposamenak irekiko dira, eta egiaztatuko da ea aurkeztu ote den prozeduran lizitatu dutenek parte hartze baldintzak betetzearen adierazpena, pleguan ezarritakoari jarraikiz.

Baldin eta, salbuespen gisa, eskatu bada aurretiaz frogatu daitezela kontratatzeko baldintzak, edo nortasuna, gaitasuna, kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzeko dokumentazioan zerbait falta bada edo zalantzarik sortzen badu, ukitutako pertsonari eskatuko zaio aurkeztu dituen ziurtagiri eta agiriak osatu edo zuzentzeko. Horretarako, bost eguneko epea emanen zaio gutxienez.

Baldin eta, zuzenketa-epea iraganik, eskatutako informazioa osatu ez bada, lizitatuzailea prozeduratik kanpo utziko da, eta agiri bidez jasoko da horren berri. Kanporatze horrek arrazoitua behar du izan, eta, interesdunari jakinarazten bazaio, gutxienez jasoko ditu hautagaitza edo eskaintza bat errefusatzeko arrazoiak, eta bidezko diren aurkaratze-bitartekoak eta -epeak».

Berrogeita hiru. 97. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«Lizitatuzaileak hautatzeko izapidea duten prozeduretan, izapide hori beste edozein jarduketa baino lehenago egingen da, pleguetan ezarritako irizpideei jarraikiz. Horretarako, hautatze-faserako dokumentazioa proposamenetik bereizita aurkeztu behar da. Hurrenkera hori Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataforman frogatuta geratu behar da.

Eskaintza teknikoak osoki nahiz partzialki balio ireitziak aplikaturik balioetsia izateko denean, bereiz aurkeztuko dira irizpide horietarako den eskaintza-dokumentazioa eta formulen bitartez zenbatestekoak diren irizpideetarako.

Balio-iritzien aplikazioari loturiko irizpideen ebaluazioa barne ekitaldi batean egingen da; bertan, teknikoki desegokiak diren eskaintzak edo kontratuaren behar bezalako exekuzioa modu egokian bermatzen ez dutenak bazter uzten ahal-

ko dira. Horren guztiaren berri agiri bidez jaso behar da.

Nolanahi ere, formula bidez zenbatestekoak diren irizpideetarako dokumentazioa irekiko da balio-iritzien aplikazioari loturiko irizpideetarako dokumentazioa ireki eta balioetsi ondoren.

Hurrenkera hori Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataforman frogatuta geratu behar da.

Baldin eta Kontratazio Mahaiaren iritziz edo, kasua bada, unitate kudeatzailearen iritziz, aurkeztutako eskaintzaren bat iluna edo zehaztugabea bada, argibide osagarriak eskatu ahal izanen ditu, betiere lizitatuzaileen arteko tratatu berdintasunaren printzipioa errespetatuz. Lizitatuzaileek ezin izanen dute aurkeztutako eskaintza aldatu. Erantzuteko epea gutxienez bost eguneko eta gehienez hamar eguneko izanen da».

Berrogeita lau. 98.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«1. Pleguan ezarritako diren eskaintza bat, lizitazio prezioaren edo aurkeztutako gainerako eskaintzen erreferentzia hartuta, baxuegitzat hartzeko baldintzak, prestazioaren xedea eta merkatuko baldintzak kontuan hartuta.

Aurkezturiko eskaintza baxuegi batek pentsarazten duenean ez dela erregulari beteko, eskaintza errefusatu baino lehen horren berri emanen zaio kasuko pertsonari, egoki deritzon justifikazioa aurkez dezan bost eguneko epean.

Lizitatuzaileari zuzendutako informazio-eskaera argiro adierazi behar da, halako moduan non eskaintzaren bideragarritasuna guztiz eta behar bezala justifikatzeko moduan egonen baita, eskaintzaren baxuegitasuna zein parametrotan oinarriturik definitu den zehazturik».

Berrogeita bost. 98.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«3. Kontratazio-mahaiak edo, kasua bada, unitate kudeatzaileak lizitatuzaileak emandako informazioa ebaluatuko du, eta eskaintza atzera botatzen ahalko du soilik aurkeztutako agiriak ez badute modu egokian justifikatzen proposatutako prezioa edo kostuak.

Prozeduran beharrezkoa izanen da aholkularitza teknikoak eskatzea, justifikazioan jasotako zertzeladak balioesteko egokitzat jotzen den jakintza daukaten pertsonena».

Berrogeita sei. 98.4. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«4. Edonola ere, eskaintzak baztertuko dira egiaztatzen bada baxuegiak direla azpikontrata-

zioari buruzko araudia urratzen dutelako edota ez dituztelako betetzen ingurumen, gizarte edo lan arloetan aplikatzekoak diren betebeharrak, nazionalak edo nazioartekoak, indarrean dagoen hitzarmen kolektibo sektorialak ez betetzea barne, foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz».

Berrogeita zazpi. 100.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«1. Kontratazio organoak hilabeteko gehieneko epean adjudikatuko du kontratua eskaintza ekonomikoa irekitzeko ekitalditik hasita, non ez den beste epe bat ezarri agerietan.

Epe horietan adjudikazioa ematen ez bada, lizitazioan parte hartzeko onartutako enpresek beren proposamenak bertan behera uzten ahalko dituzte inolako zigorrrik jaso gabe.

Baldin lizitatzailerak diren enpresek eskaintza ekonomikoen irekitzearen ondoren hilabete igaro aurretik erretiratu egiten badute beren eskaintza, lizitazio-zenbatekoaren %2ko zigorra jarriko zaie, kobratuko dena behin-behineko bermearen kargura, halakorik badago, edo berriazko ordainketa-gutuna jaulkiz».

Berrogeita zortzi. 101.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«2. Adjudikazioaren eraginkortasuna arau hauei jarraikiz geldituko da etenda:

a) Hamar egun naturaleko epean zehar, adjudikazioaren jakinarazpenaren igorpen-egunetik kontatzen hasita, baldin eta igorpen hori bitarteko elektronikoen bidez egiten bada.

b) Hamabost egun naturaleko epean zehar, adjudikazioaren jakinarazpenaren igorpen-egunetik kontatzen hasita, baldin eta igorpen hori bitarteko ez-elektronikoen bidez egiten bada.

Horretarako, adjudikazio-jakinazpenaren igorpena zer egunetan eta zer bidetatik egin zen azaltzen duen frogatik egon beharko da.

Prozeduran interesdun diren pertsona guztiek esanbidezko adierazpen bat egiten badute, non Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiari erreklamazioa aurkezteari uko egiten diotela baieztatzen duten, etenaldia garaiz aurretik amaituko da, eta prozedurak aurrera jarraitu ahaliko du.

Halaber, eskaintza bakarra aurkeztu den lizitazio-deialdidun prozeduretan, ez da apartatu honek aipaturiko etenaldia aplikatuko, eta zilegi izanen da prozeduraren izapidetzeak aurrera segitzea».

Berrogeita bederatzia. 101.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«3. Adjudikazio-egintza eten eginen da kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat aurkezte hutsagatik, harik eta erreklamazio hori ebatzi arte edo ebazteko legezko epea igaro den arte».

Berrogeita hamar. 102.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«1. Kontratu-adjudikazioak, salbu eta zenbateko txikiko kontratuak adjudikatzeko araubide bereziaren bidez egiten direnak, Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko dira, bost eguneko epean, kontratu-adjudikazioaren eraginkortasunaren etenaldia amaitzen denetik hasita bost eguneko epean. Lizitazio-iragarkirik argitaratu ez deneko kontratu-adjudikaziorako iragarkietan horretarako justifikazioa ematen duen azalpen labur bat erantsiko da, egitatezko inguruabarrak eta zuzenbide-oinarriak aipatzen dituenak».

Berrogeita hamaika. 101.6. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«6. Kontratuak agiri administratiboan formalizatuko dira bost egun naturaleko epean, adjudikazio-etenaldia amaitzen denetik zenbatuta, salbu eta pleguak epe luzeagoa aipatzen badu. Agiri administratiboan formalizatutako kontratuak edozein erregistro publikotan sarrera izateko bezainbesteko titulu izanen dira».

Berrogeita hamabi. 102.4. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«4. Kontratazio-organoei idatzizko txosten bat prestatuko dute obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratu edo esparru-akordio bakoitzari buruz, bai eta erosketa-sistema dinamiko bat ezartzen duten bakoitzean ere.

Foru lege honen 88. artikuluan aipaturiko iragarkiak argitaratzea, ezarritako epeetan eta formalitateekin, nahikoa izanen da apartatu honen lehen paragrafoak aipatzen duen txostena prestatzeko betebeharrak betetzat jotzeko, baldin eta gutxienez ere honako informazio hau biltzen badute:

a) Adjudikazio-boterearen izena eta helbidea, eta kontratuaren, esparru-akordioaren edo erosketa-sistema dinamikoaren xedea eta prezioa.

b) Kasua bada, hautaketa kualitatiboaren edo eskaintzen eta soluzioen kopuruaren murriztapenaren emaitzak, foru lege honek prozedura murrizturako, negoziatuzko lizitazioarenerako, lehia-elkarrizketarenerako eta berrikuntzarako elkartzarenerako ezartzen duenari jarraikiz. Zehazki:

1. Hautaturiko hautagaien edo lizitatuzaileen izenak eta haien hautaketa justifikatzen duten arrazoiak.

2. Bazter utzitako hautagaien edo lizitatuzaileen izenak eta haien bazterketa justifikatzen duten arrazoiak.

c) Baxuegitzat jotako eskaintzak baztertu izanaren arrazoiak.

d) Adjudikazio-hartzailearen izena eta haren eskaintza onartu izanaren arrazoiak; bai eta, eza-guna baldin bada, adjudikazio-hartzaileak hirugarrenekin azpikontratatzeko asmoa duen kontratu-partea edo esparru-akordioaren parte; eta, baldin badaude eta une horretan ezagunak baldin badira, kontratista nagusiaren azpikontratisten izenak.

e) Negoziatiodun lizitazioeko prozeduretarako eta lehia-elkarrizketako prozeduretarako, zer inguruabarrek justifikatzen duten prozedura horiek erabiltzea.

f) Aurretiazko argitarapenik gabeko prozedura negoziatuei dagokienez, zer inguruabarrek justifikatzen duten prozedura hori erabiltzea.

g) Kasua bada, adjudikazio-botereak zer arrazoiengatik erabaki duen kontratu edo esparru-akordio bat ez adjudikatzea edo egitea edo uko egin dion erosketa-sistema dinamiko bat ezartzeari.

h) Kasua bada, zer arrazoiengatik erabili diren, eskaintza-aurkezpen elektronikorako, elektronikoez bestelako komunikabideak.

i) Kasua bada, detektaturiko interes-gatazkak eta horiei dagokienez harturiko neurriak.

j) Kasua bada, kontratuko dokumentuak prestatzeko aurretiazko enpresa-partaidetzaren esparruan harturiko neurriak».

Berrogeita hamahiru. 108. bis artikulua berria sartzen da. Testu hau izanen du:

«108. bis artikulua. Kontratu-betetzeari buruzko ebaluazio-txostena.

Kontratua amaitzen denean, unitate kudeatzaileak txosten bat eginen du ofizioz, kontratuaren betetze egokiari buruzkoa, eta txosten hori Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko du. Kontratista nagusiarentzat jaulkitzen diren betetze egokiari buruzko txostenek aipatuko dituzte kontratuaren betetzealdian zehar egondako lagatze- eta azpikontratatzeko portzentajeak, eta gero batean izanen diren lizitazioetan kaudimena frogatzeko balioko dute, kontratazio-organismoari berriazko ziurtagiria eskatzeko beharrik gabe frogatu ere.

Txosten hori ez argitaratzeak aditzera emanen du kontratazio-organismoaren goganbehartsu dela kontratu-betetze egokiari buruz.

Betebehar hori ez da egonen munta txikiko gastuetarako prozedura bereziaren bidez adjudikaturiko kontratuaren».

Berrogeita hamalau. 116.1.b) artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«b) Kontratistak kaudimen ekonomiko eta finantzario, tekniko edo profesionalik ez izatea».

Berrogeita hamabost. 116.2.b) artikulua kentzen da.

Berrogeita hamasei. 125.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«1. Kontratu publiko baten lizitazioan eta adjudikazioan interesa dutenek Nafarroako Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegiari eskatu ahal izanen diote, aurreko artikuluan ezarritako epeetan, alegatutako arau-haustea zuzentzeko edo ukitutako interesei kalte gehiago ez eragiteko kaudelazko neurriak har daitezela, prozeduraren edo prozedura horretan hartutako edozein erabakiren etetea barne direla, baldin eta aipaturiko kasuetan ez bada gertatzen egintza aurkaratuaren etete automatikoa, foru lege honen 124.4 artikulua aurreikusia».

Berrogeita hamazazpi. 125.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«3. Nafarroako Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegiak kontratuaren administrazio espediente edo dokumentazioa eskatuko dio ukitutako entitateari. Kontratazio organismoak bi egun balioduneko epea izanen du hori aurkeztu eta egokitzea jotzen dituen alegazioak egiteko. Epe hori iraganik, eskatutako dokumentazioa aurkeztu zein ez, Nafarroako Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegiak ebazpen arrazoitua emanen du bost egun balioduneko epean. Epe horretan berriazko ebazpenik jakinarazi ezean, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, non ez den egintzaren bat edo lizitazio prozedura etete eskatzen; halakoe-tan, epearen barrenean ebazpenik jakinarazten ez bada, etenduraren eskaera onartu egin dela ulertuko da.

Apartatu honetan xedatutakoak ez du eragoztiko izapidetze-egintzen, adjudikazio-egintzaren, esparru-akordio baten edo ente instrumental bati egindako enkarguaren etete automatikoa, egintza horien aurka kontratazio publikoaren arloko erreklamazio berezi bat aurkeztzen denean».

Berrogeita hemezortzi. 126.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«1. Erreklamazioa telematikoki aurkeztuko da Nafarroako Kontratazioaren Atarian, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiari zuzendua, erregelamenduz zehazten diren baldintzak betez, foru lege honetan ezarritako epeetan.

Interesdunak kontratazio-espeditentea erreklamazioa aurkeztu aurretik nahi badu aztertu, horretarako eskaera egin beharko dio kontratazio-organismoari, zeina behartuta egonen baita erakustera, ezertan eragotzi gabe foru lege honen 54.1 artikuluan aurreikusitako konfidenzialtasun-mugak.

Espedienterako irispidea izateko eskaera erreklamazio berezia aurkezteko epearen barranean egin beharko da, eta kontratazio-organoa behartuta egonen da irispide hori ematera eskaera jaso ondoko hiru egun balioduneko epean.

Lehenago xedatua kontratazio-organismoak ez badu betetzen, interesdunak ez dira salbuetsita geratuko erreklamazio berezia foru lege honek ezarritako epean aurkezteko daukaten betebeharretik. Dena den, erreklamaziogileak zilegi izanen du bere erreklamazioan ez-betetze hori alegatzea. Auzitegiak zilegi izanen du, ikusirik erreklamaziogileak eta kontratazio-organismoak alegaturikoa eta aintzat harturik kasuko inguruabarrak, erreklamaziogileari hiru egun balioduneko irispidea ematea kontratazio-organismoak eskueran ipinitako kontratazio-espeditenterako, erreklamazioa osatzeko alegazioak aurkeztu aurretik. Kasu horretan, kontratazio-organismoak halaber zilegi izanen du bi egun balioduneko epean alegazio berriak aurkeztea».

Berrogeita hemeretzi. 139.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«2. Urte anitzeko izaerakoak diren diru-laguntzen araberako finantzaketa duten kontratuak kontratu bakar gisa adjudikatzen ahalko dira, prozedura irekiaren nahiz murriztuaren bidez, aurreikusirik kontratua diru-laguntzen erritmoaren arabera bete dadila».

Hirurogei. 141.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«2. Kontratu-hartzaileak organo kontratazailearen aurrean justifikatu beharko du, hala eskatzen zaion edozein unetan, aplikatzekoa den hitzarmen kolektibo sektorialak ezartzen dituen lan baldintzak betetzen direla, edo beharrezkotzat jotzen den beste edozein zertzelada, nortasunari, gaitasunari, kaudimenari edo kontratua betetzeko moduari buruzkoa».

Hirurogeita bat. 152.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«2. Prezioa ordaintzeko araubidea pleguetan ezarriko da. Era berean, eta ezertan ukatu gabe kasua bada aplikatzea urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan (LBK 2015, 1654) ezarritakoa, pleguan beti aurreikusi beharko da kontratataren betebeharra dela subrogazioak ukitutako langileei ordaindu gabe utzitako soldaten erantzule izatea, bai eta sortutako Gizarte Segurantzarako kotizazioena ere, are kontratua suntsitu eta kontratista berriak langileak subrogatzen dituenean; betebeharrak hori ez da inola ere kontratista berriarena izanen. Kasu horretan, behin soldata horiek ordaindu gabe daudela frogatuta egon ondoren, Administrazioak kontratistari zor zaizkion kopuruak atxikiko ditu, soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko harik eta soldata horien ordainketa frogatzen den arte».

Hirurogeita bi. 158.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«2. Edozein modutan, kontratua bete dela egiaztatzeko, Administrazioak harrera- edo adostasun-egintza formal eta positibo bat egingen du, kontratuaren xedea burutzen edo entrega egiten denetik kontatzen hasita hamabost eguneko epean gehienez ere. Hornidura-kontratueta nahikoa izanen da garraio-agiria sinatzea. Zerbitzuate iraukorreko kontratueta nahikoa izanen da unitate kudeatzaileak oniritzia ematea fakturan edo behar bestekotzat jotzen den beste dokumentu batean, prestazioa behar bezala bete dela ulertzeko. Obra kontratueta eta herri-lanen emakidarako kontratueta, pleguak epe hori luzatzen ahalko du obrak amaitu eta hogeita hamar egun geroago arte».

Hirurogeita hiru. 161. bis artikulua berria gehitzen da. Testu hau izanen du:

«161. bis artikulua. Kontratu-suntsiarazpeneko prozeduren metaketa eta kontratatze debekuen ezarpena.

1. Zilegi izanen da kontratistari egoztekoa zaion arrazoiaren ondoriozko kontratu-suntsiarazpeneko prozeduraren izapidetzeari metatzea kontratatze debeku bat ezartzeko prozedurari dagozkion izapidetak, debeku hori deduzi daitekeenean kontratistak kontratu-suntsiarazpenaren errua izatetik.

2. Kasu horretan, prozedura hasteari buruzko ebazpenak ohartaraziko du kontratatze debeku-

rako arrazoi bat egotearen usteaz, kontratua azkenean suntsiarazirik gertatzearen kasuari lotuta. Zertzelada hori aipatuta utziko da egin beharrekoak diren kontratistari entzuteko izapideetan, kontratistak modua izan dezan horretaz mintzatzeko. Era berean, prozeduran esku hartu behar duten organoei egin beharrekoak diren txosten-eskaeretan ere utziko da aipatuta.

3. Kontratu-suntsiarazpeneko prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak halaber zehaztuko du, kasua bada, kontratatzeke debekuaren norainokoa eta iraupena.

4. Baldin eta kontratu-suntsiarazpeneko prozedura aldi berean gauzaten bada xede bera duen adjudikazio-prozedura berri baten lizitazioarekin, bigarren horren adjudikazioa baldintzatuta egonen da lehena aurretiaz ebazteari, eta adjudikazio berria aurretiazko suntsiarazpen-prozeduran deklaraturiko kontratatzeke debekuaren efektuen eragin-eremuan egonen da».

Hirurogeita lau. Hamargarren xedapen gehigarria aldatzen da. Hona testu berria:

«Hamargarren xedapen gehigarria. Irakaskuntza-, dibulgazio- eta arte-jarduerekin zerikusia duten kontratuetarako araubide berezia.

Kontratuaren xedea pertsona fisikoei adjudikaturiko irakaskuntza- edo prestakuntza-jardueraren bat denean, gauzatua Administrazioaren zerbitzuko langileentzako prestakuntza- nahiz hobekuntza-ikastaroetan edo enplegurako prestakuntzako zentro publikoetan emandako prestakuntza-ekintzetan, bai eta mintegi, solasaldi, mahai-inguru edo hitzaldietan, kolaborazioetan, zientzi artikuluetan edo idatzizko materialen prestatetan, eta espezialitate artistikoaren arabera adjudikatzekeoak diren kontratuetan, hala nola zuzendaritza artistikoak, komisariotzak eta antzeko jarduerak, izapide hauek baizik ez dira egin behar, aplikatzeko den aurrekontu arloko legeriarekin bat: organo eskudunak eginiko hautaketa edo izendapena, eta kasuan kasuko fakturaren aurkezpena».

Hirurogeita bost. Xedapen gehigarri bat, hogeita batgarrena, gehitzen da. Testu hau izanen du:

«Hogeita batgarren xedapen gehigarria. Medikamentu-erosketa publikoari aplikatzeko zaion araubidea.

1. Osasun Sistema Nazionalerako finkaturiko laborategi-salneurriak dituzten medikamentuak, jadanik erakunde publiko batekiko negoziazioa eta prezio-finkatze administratiboa egon izanez gero, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak

zuzenean erosten ahalko ditu, lizitazio beharrik gabe.

2. Patente-babesa daukaten medikamentuak, Medikamentuen Prezioetarako Ministerioarteko Batzordeak prezio publikoa zehaztu ondoren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zuzenean erosten ahalko ditu, gehieneko erreferentziatza harturik Osasun Ministerioak finkaturiko prezioa.

3. Medikamentu generikoen, bioantzekoen eta medikamentu originalen erosketetan, farmaziaz-zerbitzuek zilegi izanen dute medikamentu horietako edozein aukeratzea, kudeaketa efizienteari dagozkion irizpideak aintzat harturik, medikamentu-erosketarako eskudun den organoak aurretiaz ezarri dituen nahitaezko baldintzak onartzen dituzten hornitzaileek eskainitako artetik. Hornitzaile batekin edo batzuekin medikamentu-erosketa publikorako akordio bat sinatzeak ez du eragoziko gero beste akordio batzuk sina daitezela ezarritako baldintzak onartzen dituzten hornitzaile berriekin.

4. Aurreko puntuan adierazitakoa gorabehera, komenigarriagozat jo ezker aipaturiko hornitzaile edo medikamentuetatik bakarrarekin lan egitea, zilegi izanen da haietako bakarra hautatzea medikamentu-eskarien xede izateko, hartara prozedura bat eginez, zeinean ezarriko baitira hautaketarako aintzat hartuko diren hauta-irizpide kualitatiboak, bai eta haien haztapena ere. Parte-hartzea eman beharko zaie balizko hornitzaile guztiei, eta hamar eguneko gutxieneko epea ezarriko da, Interneteko argitarapenetik edo gonbidapen-bidalketatik aurrera zenbatzekoa, beren eskaintzak aurkez ditzaten. Unitate arduradunak prozeduraren emaitza jakinarazi eta Interneten argitaratuko du, arrazoiak agertuta. Hornitzailea edo medikamentua bakarra duten medikamentu-erosketa publikorako akordio horien epea ez da urtebete baino gehiagokoa izanen, salbu eta urteko zenbatekoa ez denean 100.000 euro baino gehiagokoa, ezen kasu horretan urtebete gehiago luzatzen ahalko da, alderdiak aurretiaz elkarrekin ados jarrita.

5. Medikamentu-erosketa publikorako edozein motatako akordioak izaeraz pribatu izanen dira, baina haiek izapidetzean honako hauek bete behar dira:

a) Beharizanaren eta kreditua egotearen justifikazioa.

b) Hornitzaileek bete beharreko baldintzen zehaztapena, esanbidez ezarrita zein izanen den ordainketa-sistema eta zein izanen diren epeei, produktuaren kalitateari edo horniduraren kantitateari dagozkien urraketengatik kontratu-zigorrak.

c) Enpresari zuzenduriko eskaera formala. Eskaera hori onartzeak esan nahi du akordioaren termino guztiak betetzeko konpromisoa hartzen dela.

6. Medikamentu-erosketa publikorako akordioak segidako traktukoak direnean, zilegi izanen dute xedapenak txertatzea haien aldatetari eta berariazko suntsiarazpen-arrazoiei buruz».

Hirurogeita sei. Xedapen gehigarri bat, hogeita bigarrena, gehitzen da. Testu hau izanen du:

«Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Foru lege honetan arauturiko prozedurei aplikatzekoak zaizkien arauak.

1. Foru lege honetan arauturiko prozedurek, lehenik eta behin, foru legean bertan eta haren garapen-arauetan jasotako aginduak izanen dituzte araubide; eta, ordezeko modura, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari

buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta haren arau osagarriek jasotzen dituztenak.

2. Betiere, interesdun den pertsona batek eskaturik hasitako prozeduretan, haietarako ez baldin bada berariaz besterik ezartzen, eta xedatzen edo gaitzat badute kopuru-erreklamazioa, administrazio-prerrogatiben egikaritzea edo administrazio-kontratu baten exekuzioarekin, betetzearekin nahiz azkentzearekin zerikusia duen beste edozein afera, interesdun den pertsonak zilegi izanen du, prozeduraren ebazpenerako ezarritako epea ebazpen hori jakinarazi gabe igaro denean, bere eskaera administrazio-isiltasunez ezetsizat jotzea, ezertan eragotzi gabe ebazteko betebeharrak bere horretan irautea».

Azken xedapen bakarra. Foru legeak indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdia, euskararen ezagupenaren baldintzarekin eta Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko.

Nafarroako Arartekoa instituzio publikoa da, herritarren eskubideak eta askatasun publikoak babesten eta hobetzen ditu eta Nafarroako administrazio publikoen jardura gainbegiratzen du. Hori horrela, Nafarroako Arartekoak uste du Zuzenbideko unibertsitate-titulua duten pertsonen prestakuntza sustatu behar dela, modu teorikoan zein praktikoan, zuzenago ezagutu ditzaten Nafarroako Arartekoaren lan egiteko modua eta jarduerak. Beka horiek, herritarrekiko harremanarekin zerikusia duten funtzioekin, tutoretza baten ikuspegiaren eta irizpideen arabera, tutoretza horrek orientazioa, laguntza, prestakuntza eta gidaritza emango dizkie tutoretza horretan dauden bitartean.

Horretarako, erabaki da Nafarroako Arartekoan aritzeko, euskaren ezagutzaren baldintzarekin, Zuzenbideko gradua dutenentzat prestakuntzabekaren deialdiko oinarriak onartzea.

Deialdiak bete egiten ditu bai oinarri arautzaile hauek bai Nafarroako Arartekoaren araudiak agintzen duena ere.

Horren ondorioz, 2005eko azaroaren 21ean Nafarroako Legebiltzarreko Mahaiak onartutako Nafarroako Foru Komunitatearen Arartekoaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren Araudiak ematen dizkidan eskumenak erabilia, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. Urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdia onestea, euskararen ezagupenaren baldintzarekin eta Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko.

Eranskinean agertzen diren oinarriek arautzen dute deialdi hau.

2. Deialdia argitaratzea Nafarroako Parlamentuaren Aldizkaria Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta instituzioko gune digitalean (www.defensonavarra.com).

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Nafarroako Arartekoa: Francisco Javier Enériz Olaechea

ERANSKINA

Urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdirako, euskararen ezagutzaren baldintzarekin, oinarriak onesten dituen, Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko

1. oinarria. Xedea.

1.1. Deialdiaren xedea da, euskararen ezagutzaren baldintzarekin, Zuzenbideko gradua duten pertsonentzako beka bat ematea, lehiaketa bidez, Nafarroako Arartekoan aritzeko.

1.2. Deialdiaren helburua da Zuzenbideko gradua dutenentzat prestakuntza juridikoa bultzatzea, instituzioan herritarren eskubideak babesteko eta hobetzeko egiten diren jarduerak zuzenean ezagutu ditzaten.

1.3. Euskararen ezagutzak baldintza espezifikoak suposatzen du. Baldintza honek Nafarroako Arartekoarengana euskaraz zuzentzen den edonorekin harremantzea, Nafarroako hizkuntza propio honetan erantzuteko beharrean du oinarria.

2. oinarria. Iraupena.

2.1. Bekak hamabi hilabete iraungo du, eta aukeratze prozesua bukatzerakoan espero da bere hasiera.

2.2. Beka ezin da luzatu.

3. oinarria. Bekaren zenbatekoa eta ordainketa.

3.1. Bekak 1.050 euroko zenbateko gordina izango du hilean, edo dagokion zati proporzionala, hala behar bada. Bekadunari dagokion Gizarte Segurantzaren kuota deskontatuko zaio. Diru-kopuru horri pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokion atxikipena egingo zaio, indarra duten arauak jarraikiz hala egin behar baldin bada.

3.2. Bekaren onuradunaren araubidea besteren konturako langileenaren parekoa izango da

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzearen ondorioetarako, urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuan ezarri bezala; dekretu horrek prestakuntza-programetan parte hartzen dutenak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean nola eta zein baldintzatan sartzeko diren arautzen du, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratu, egokitu eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa garatuz.

3.3. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzeko, bertan kideatzeko eta/edo alta hartzeko, eta araubide horretatik ateratzeko ere, kon-tuan hartuko da pertsona onuraduna noiz hasten den prestakuntza-programan eta noiz uzten duen, enpresak Gizarte Segurantzaren inskribatzeko eta langileak kideatzeko, alta eta bajak hartzeko eta haien datuak aldatzeko Erregelamendu Orokorrean ezarritako modu, epe eta ondorioekin. Urtarrila-ren 26ko 84/1996 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.

3.4. Onuradunari ematen zaion dirua ez da inolaz ere soldata edo lansaritzat hartuko, laguntza ekonomiko publikotzat baizik.

4. oinarria. Bateriaezintasunak.

Prestakuntza-beka bateraezina izango da Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioak emandako bekekin, bai eta beste administrazio, instituzio edo entitate publiko zein pribatu batzuek edo partikularrek emandako bekekin ere, instituzioak aurkakoa adierazi ezean.

5. oinarria. Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

5.1. Dokumentazioa aurkezteko epea bukatzen den egunean baldintza guzti hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak soilik izan daitezke onuradunak:

a) Adinez nagusia izatea.

b) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen duen estaturen batekoa izatea. Nolanahi ere, Espainiako nazionalitatea ez duenak gaztelaniaz behar adina badakiela frogatu beharko du.

c) Zuzenbideko graduaren unibertsitate-titulu ofiziala izatea, Espainiako agintariak emana edo homologatua, eta deialdi hau argitaratu baino lehenagoko hiru urtean lortu izana. Zuzenbideko graduaren baliokidea izango da Zuzenbideko eta beste zientzietako gradu bikoitza.

d) Bizitokia Nafarroan izatea, deialdia argitaratu baino urte bat lehenagotik gutxienez.

e) Jarduteko gaitasun osoa izatea, eta ez izatea bekaren xede den prestakuntza-jardueran aritzea galaraz diezaiokeen desgaitasun fisikorik edo gaixotasunik.

f) Euskarako B2 maila edo maila baliokidea izatea.

g) Zerga guztien ordainketak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzea, eta ez kobratzea administrazio edo entitate publiko edo pribatu batetik helburu bera duen beste edozein laguntza publiko bateraezinek.

5.2. Baldintza horiek guztiak bekaldi osoan bete beharko dira.

6. oinarria. Baloratzeko baremoa.

Baremo honi jarraituz baloratuko dira eskabi-deak:

a) Ikasketa-espeditentea: Gehienez ere 10 puntu.

Espeditentearen batez besteko nota baloratuko da dagokion Unibertsitateak emandako puntuazioaren arabera.

Ez dira baloratuko 6 puntutik beherako batez bestekoa duten espeditenteak (10 puntuko eskalan)

b) Bestelako unibertsitate-titulu ofizialak:

Zuzenbideko gradua ez den bestelako unibertsitate-titulu ofizialik izanez gero, Espainiako agintariak emana edo homologatua, puntu bat emango da titulu bakoitzeko.

Unibertsitateko gradu titulua ez den bestelako titulua, dela masterra, dela doktoretza edo besteren bat 0,5 puntu titulu bakoitzeko.

c) Zuzenbide publikoari lotutako ikasgai edo arlo hauetan lortutako kalifikazioek: gehienez ere 10 puntu.

– Konstituzio-zuzenbidea.

– Zuzenbidearen iturriak.

– Oinarrizko eskubideak.

– Estatuaren antolaketa.

– Administrazio-zuzenbidea, zati orokorra.

– Administrazio-zuzenbidea, zati berezia.

– Nafarroako zuzenbide publikoa.

d) Hizkuntzen ezagutza.

Ikastetxe publikoek emandako ziurtagiriak edo titulu ofizialak soilik baloratuko dira.

Hizkuntza eskola ofizial batek emandako gaitasun-agiria edo titulua edo ofizialki baliokidea den titulua edukiz gero, gehienez ere 1 puntu hizkuntza bakoitzarengatik; baremo honen arabera:

HEOko MAILA	ZIURTAGIRIA	PUNTUAK
1. eta 2. maila	A1 eta A2	0
3. maila	B1	0,40
4. maila	B2	0,70
5. maila	C1	1,00

Hizkuntza eskola ofizialetatik kanpoko ikastetxeetan egindako ikasketen kasuan, berariaz aipatu beharko da egindako ikasketak zein ziurtagiriaren baliokideak diren, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren gomendioei jarraikiz.

Euskarari dagokionez, ez da B2 maila baloratuko ezta maila txikiagoa ere ez. C1 edo maila baliokidea 0,5 punturekin baloratuko da eta C2 maila 1 punturekin.

e) Elkarrizketa pertsonala: gehienez ere 10 puntu.

Puntu gehien lortu dituzten hiru pertsonaiekin egingo zaie elkarrizketa. Ebaluazio Batzordeko kide batek egingo ditu elkarrizketak.

Baloraziorako honako hauek hartuko dira kontuan: motibazioa; ekimena; erantzunen argitasuna eta ordena; gaiak beren artean lotzeko gaitasuna; jendea hartzen jarduteko, talde-lanerako eta gizarte-harremanetarako gaitasunak; eta beste gaitasun sozial edo intelektual batzuk.

Beka eskatzaileei posta elektronikoz egingo zaie dei, gutxienez ere 48 ordu lehenago. Elkarrizketa egitea nahitaezkoa da, eta hautapen prozesutik baztertu egingo da agertzen ez dena; hala koetan, puntuazio handiena duen hurrengoari deituko zaio.

Era berean, hautagai bakoitzarekin elkarrizketa bat mantenduko da euskaraz, Nafarroako hizkuntza propio honetan bere espresioa eta hitz jarria baloratzeko asmoarekin.

7. oinarria. Eskaerak.

7.1. Interesdunek dagokion eskabidea toki hauetako batean aurkeztu beharko dute:

a) Nafarroako Ararteko Erregistroan. Emilio Arrieta kalea 12, behea, 31002, Iruñea.

b) Posta elektronikoz, dokumentu guztiak info@defensornavarra.com helbidera bidalita, 7.3 puntuan ezartzen dena kontuan hartuz.

c) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako tokiren batean.

7.2. Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hogeitun egun naturaleko epean aurkeztu beharko da eskabidea.

7.3. Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Eskabidea, eranskineko ereduaren arabera betea.

b) Eskatzailearen curriculum vitae-a, lortutako merezimendu guztiak zehatz-mehatz jasota.

c) Ikasketa espedientearen ziurtagiria, maila bakoitzeko gai guztien kalifikazioekin, batez besteko nota barne, zein deialditan gaudituz zituen espresuki aipatzen duena.

d) Alegatzen dituen merezimenduak frogatzeko agiriak.

e) Hizkuntzak meritu gisa baloratzeko: hizkuntza ezagutzaren dutela bermatzen duten ziurtagiriak edo titulu-egiaztagiria.

7.4. Epean aurkeztutako eskaerak aurreko zenbakian finkatutako dokumentuak ez baditu, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean zuzendu dezala, eta adieraziko zaio, zuzendu ezean, eskaerari uko egiten diola ondorioztatuko dela eta espediente artxibatuko dela, eta azken gorabehera hori jakinaraziko zaiola.

Deialdian ezarritako merezimenduei buruzko agiriak aurkezten ez badira, ezingo da zuzenketa egin.

7.5. Eskatzaileek beren helbide elektronikoa emango dute, behar diren jakinarazpenak jasotzeko.

7.6. Prestakuntza-beka jasotzeko eskaera aurkezteak berarekin dakar eskatzaileak deialdiaren oinarriak onartzea.

8. oinarria. Ebaluazio Batzordea.

8.1. Ebaluazio Batzordea arduratuko da betebeharrak egiaztatzeaz eta beka eskatzen dituztenek alegatutako merezimenduak ebaluatzeaz.

8.2. Ebaluazio Batzordeak aurkezten diren eskaerak aztertu eta baloratuko ditu, eta izangaien

zerrenda bat egingo du, lortutako puntuazioaren arabera.

8.3. Ebaluazio Batzordea hauek osatuko dute:

- Instituzioko idazkari nagusiak.
- Nafarroako Ararteko aholkulari batek (idazkari-lanak egiten dituen).
- Instituzioko kudeaketa-teknikariak.

Aipatutako pertsonetako bat ez badago, Nafarroako Arartekoak instituzioko aholkulari bat izenda dezake.

9. oinarria. Hautaketaren ondorengo prozedura.

9.1. Ebaluazio Batzordeak bekarako hautatu duen pertsonak dokumentazio hau aurkeztu beharko du, hautaketa jakinarazi eta gehienezko bost egun naturaleko epean:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren edo baliokidea den identifikazio agiriaren fotokopia.
- b) Zuzenbideko graduaren tituluaren fotokopia.
- c) Nafarroako herriren bateko erroldatze zurgiri eguneratua, antzinasuna zehazten duena.
- d) Euskarazko B2 titulu publikoaren kopia bat edo maila baliokidearena.
- e) Jarduteko gaitasun osoa duela, eta bekaren xede den prestakuntza-jardueran aritzea galaraz diezaiokeen desgaitasun fisikorik edo gaixotasunik ez duela adierazten duen dokumentu bat. Eredu bat emango da baldintza hori egiaztatzeko.

f) Zerga guztien ordainketak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzea, eta ez kobratzea administrazio edo entitate publiko edo pribatu batetik helburu bera duen beste edozein laguntza publiko bateraezinik. Eredu bat emango da baldintza hori egiaztatzeko.

9.2. Beka Nafarroako Arartekoaren ebazpen baten bidez emango da, eta ebazpen hori instituzioaren gune digitalean argitaratuko da: <https://www.defensornavarra.com>

Hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenei idatziz emango zaie emaitzaren berri, eta lortu duten guztizko puntuazioa adieraziko zaie; nolahi ere, espedienteko informazioa kontsultatzeko eskubidea izango dute.

9.3. Eskatutako dokumentazioa ez bada aurkezten, edota aurkezten dena ez da eskatutakoa, interesdunak uko egin duela ulertuko da, eta zentzu horretan komunikatuko zaio.

9.4. Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hiru hilabeteko epean berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, ukatu egin direla ulertuko da.

10. oinarria. Deialdia hutsik geratzen bada.

Hautatze prozesu honen arabera deialdia hutsik geratzen bada, Nafarroako Arartekoko instituzioak aurreko deialdira aurkeztu ziren pertsonen dei dezake, betiere deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen badituzte eta jasotako puntuazioa kontuan hartuta, edonola ere eta hautaketa egokia lortzeko beharrezko neurriak hartu ahal ditu.

11. oinarria. Tutoretza.

11.1. Beken onuradunaren jarduerak aholkulari batek gainbegiratuko ditu eta aholkulari horren tutoretzapean egongo da onuraduna.

11.2. Tutoreak orientazioa, laguntza, prestakuntza hobea eta gidaritza emango dizkio bekadunari erakundean dagoen bitartean. Prestakuntza bideratu eta gainbegiratzear arduratuko da, orientabideak, gomendioak, iradokizunak eta, hala badagokio, zuzenketa oinarrituak ezarri, bekadunak prestakuntza hobea izan dadin. Bekadunen betebeharrak orokorrak eta espezifikokoak betetzen direla gainbegiratuko du.

11.3 Tutoreak prestakuntza-plan orientagarri bat emango dio bekaren onuradunari, bertan nahitaezkotzat jotzen diren ebaluazioak alde batera utzi gabe.

12. oinarria. Onuradunaren betebeharrak.

Betebeharrak hauek ditu bekaren onuradunak:

- a) Bekaren xedeko prestakuntza-jarduera betezea.
- b) Betebeharrak eta baldintzak betetzen dituela frogatzea, bai eta, orobat, beka jasotzeko arrazoi izan diren jarduerak egin dituela eta helburuak bete direla ere.
- c) Emandako bekaren gainean egin ditzaketen egiaztapen-lan guztietan parte hartzea.
- d) Xede berarekin eskatu edo jaso dituen bes-telako beka edo diru-laguntzen berri ematea Nafarroako Arartekoari.
- e) Nafarroako Arartekoari komunikatzea emandako bekari espresuki uko egiten diola, jarduerak utzi baino hamar egun natural lehenago guxtienez.
- f) Bekaren zuzeneko ondorio diren jarduerak eta argitalpen guztietan bekadun gisa aritu dela adieraztea.

g) Bekaldiak irauten duen bitartean eta ondoren, ezagutzen duen isilpeko informazio tekniko edo administratiboaren gainean sekretua eta konfidentzialtasuna gordetzea.

h) Zein erakundetan jarduten duen, bertako barne edo funtzionamendu araubidea betetzea.

i) Nafarroako Ogasun Publikoarekin dituen betebeharrak egunean dituela egiaztatzea. Eman-go den ereduan, Nafarroako Arartekoari baimena ematea egongo da, onuradunak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen dituen datuak kontsultatzeko, jarduerak hasten diren unean.

j) Nafarroako Arartekoaren datu pertsonalak babesteko legezko erregimena onartzea.

13. oinarria. Prestakuntza-jardueraren hasiera eta uko egitea.

13.1. Onuradunak adierazten den egunean hasi beharko du lanean instituzioan. Adierazitako egunean onuraduna ez bada jardunean hasten, Nafarroako Arartekoari horren berri eman gabe, edo onuradunak lanean ez hasteko arrazoiak adierazi eta instituzioak ez badu ikusten ezinbesteko arrazoiak direla edo ez dagoela behar bezala justifikatuta, bekari behin betiko uko egiten diola ulertuko da.

13.2. Bekari uko eginez gero, Nafarroako Arartekoari horren berri eman beharko zaio. Beka erabiltzen hasi ondoren, bekari uko eginez gero, Nafarroako Arartekoari berriazko ukoaren berri eman beharko zaio, jarduera utzi baino hamar egun natural lehenago gutxienez.

13.3. Eskuratutako bekari edozein arrazoiengatik uko eginez gero, zilegi izango da zerrendan hurrengo edo hurrengo ematea, deusetan galazari gabe onuradunak uko egin arte dituen betebeharrak eta 10. oinarrian ezarritakoa kontuan hartuz. Kasu honetan, ordezkatzeko duen pertsonak, gehienez urte bateko epean egingo du.

14. oinarria. Prestakuntza-jarduera egitea.

Bekaduna Nafarroako Arartekoaren egoitzan arituko da, astean 30 ordu eginda. Halaber, bekadunak prestakuntzarako behar diren joan-etorriak egingo ditu.

Bekadunak 27 egun baliodun izango ditu atse-den hartzeko.

15. oinarria. Jabetza intelektualak.

Bekarako hautatu den pertsonak jabetza intelektualaren gainean dituen eskubideak, Nafarroako Ararteko bekaldian egindako jardueraren ondorioz eskuratzen direnak, eskubide horiek erregulatzen dituzten Estatuko arauetan ezarritakoari jarraikiz arautuko dira. Horri dagokionez, instituzioak ez dio uko egiten agirien, azterlanen, ikerlanen, lanen, eskubideen, emaitza zientifikoen eta izan litezkeen asmakuntzen gainean legokiokeen jabetzari.

16. oinarria. Lan- edo administrazio-harremanik eza.

16.1. Beka erabiltzea eta bekaduna izatea ez da zerbitzuak ematea, eta egoera horrek ez dakar berarekin lan-harremanik, lan administratiborik edo lan estatutupekorik sortzea Nafarroako Arartekoaren instituzioarekin, ez eta antzeko eskubiderik lortzea ere. Instituzioak ez du konpromisorik hartuko beka bukatutakoan bekadunak bere plantillan sartzeko.

16.2. Prestakuntza bekadunei agintzen zaizkien lan edo jarduerak Nafarroako Ararteko langileek gainbegiratuko dituzte eta langile horiek izango dira lan horien erantzuleak. Bekadunek ezingo dituzte Nafarroako Ararteko langileen eginkizunak bete edo beraientzat hartu, ez eta hirugarrenen aurrean instituzioako kide, ordezkari edo agente gisa agertu ere.

17. oinarria. Kalte-ordainak jasotzeko eskubidea.

Bekadunak, prestakuntza egiten ari deneko Nafarroako Arartekorekin duen harreman juridikoa ezertan aldatu gabe, eskubidea izango du zerbitzuagatik eta bidaiengatik izango duen gastuengatik langileei dagozkien ordain berberak jasotzeko.

18. oinarria. Bekaren ordainketa itzultzea edo bertan behera uztea.

18.1. Nafarroako Arartekoak eskubidea izango du onuradunari eskatzeko jaso duen zenbateko osoa edo zati bat itzultzeko, edo zenbateko horiek bertan behera uzteko, kasu hauetan:

a) Beka eskatzeko eta lortzeko baldintzak faltsutu baditu edo beka ez ematea ondorioztatuko luketen baldintzak ezkutatu baditu.

b) Bekadunak bere gain hartutako betebeharrak eta eginkizunak ez betetzea, jarduerak egiten ardurarik ez jartzea, errendimendu eta aprobe-txamendu eskasa izatea eta lanak kalitate gabe-koak izatea.

c) Prestakuntza-beka emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzea, alde zuzenetik baimena lortu gabe. Horretaz gain, aldi berean jasotzea beka horrekin bateratu ezin den beste beka edo dirulaguntzaren bat edo bateragarria kontsideratzen ez den lan edo aktibitatearen bat eginez gero.

d) Instituzioak egindako bekaren inguruko egiaztatze-jardueretan parte ez hartzea.

18.2. Nafarroako Arartekoak erabakiko du, ebazpen baten bidez, beka itzuli behar den edo bertan behera geratuko den. Horretarako, aldez aurretik espediente kontraesankor bat egingo da, txostenekin, frogekin eta onuradunaren alegazioekin.

18.3. Ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio, tokia, modua eta diru-sartzea egiteko edo beka eteteko epea adierazita.

19. oinarria. Prestakuntzaren egiaztagiria.

Prestakuntza-beka bukatzen denean, Nafarroako Arartekoak egiaztagiri publiko bat argitaratuko du onuradunaren prestakuntzari buruzkoa. Beka bere osotasunean egiten ez bada, instituzioak egiaztagiri honen igorpena ematea baloratuko du, pertsona onuraduna egindako aktibitatea ikusita.

20. oinarria. Aplikatu beharreko legeria.

Oinarri hauen interpretazioen eta aplikazioen ondorioz ager daitezkeen gorabehera guztiak

Nafarroako Arartekoak ebatziko ditu, oinarrietan ezarritakoaren eta aplikatu behar den araudiaren arabera.

21. oinarria. Errekurtsoak.

Errekurtso hauek jar daitezke deialdiko oinarrien eta oinarriak betetzeko ekintzen aurka:

a) Aukerako berraztertze errekurtsoa jartzeko aukera izango dute Nafarroako Arartekoaren aurrean, ebazpena jakinarazi eta, hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, ebazpena jakinarazten den ondorengo egunetik hasita eta bi hilabeteko epean, oinarri hartuta uztailaren 13ko 29/1998 Legea (administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena).

**ZUZENBIDEAN GRADUATUTAKO PERTSONENTZAT ETA EUSKARAREN
EZAGUTZAREN BALDINTZAREKIN NAFARROAKO ARARTEKOAN ARITZEKO
PRESTAKUNTZA BEKA BAT ESKATZEKO ESKAERA ORRIA**

_____ jaun/andreak, _____ NAN zenbakia duenak,
_____ helbidean bizi denak (zehaztu kalea, plaza,
posta-kodea eta herria), eta prozedura honi dagozkion jakinarazpenetarako _____ telefonoa eta
_____ posta elektronikoa dituenak,

ESKATZEN DU: Duela gutxi deitutako Nafarroako Arartekoaren erakundean aritzeko Zuzenbidean graduatutako pertsonentzako eta euskaren ezagutza baldintzarekin prestakuntza-beka bat lortzeko prozeduran parte hartzea.

ADIERAZTEN DU: Deialdiko 5. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela (adin nagusikoa izatea, nazionalitatea, Zuzenbideko gradu-titulua, Nafarroan bizitzea, zereginak betetzeko gaitasuna, euskarazko B2 maila edo baliokidea eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea).

HORRETARAKO, deialdiko 7.3 oinarria betez, hark eskatutako dokumentu hauek aurkezten ditu: a) eskaera-orria, beteta eta sinatuta, b) curriculum vitae-a eta lortutako merezimenduen zerrenda, c) espediente akademikoaren egiaztagiria, d) aipatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentuak eta e) beharrezkoa izanez gero, hizkuntzen egiaztapen-tituluak.

JAKINARAZTEN DU: Onartzen dituela deialdiko oinarriak eta prestakuntza-beka honen kudeaketari lotuta bere datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen duela.

_____ (e)an, _____ ko _____ (a)ren _____ (e)an.

Eskatzailearen sinadura.

(Deialdia bizkortzeko, arren, dokumentuak posta elektronikoko bidez info@defensornavarra.com edo presentzialki Emilio Arrieta 12, behea, Iruñea helbidean aurkezteko eskatzen da)

NAFARROAKO ARARTEKO JAUNA

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Datu pertsonalen babesarekin lotutako alderdi guztietan, Nafarroako Arartekoak 2016ko apirilaren 27ko Europako Araudiarekin, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearekin eta bere jarduerari aplikagarri zaizkion gainerako legeekin bat etorri jarduten du.

1. Arduraduna: Nafarroako Arartekoa. 2. Xedea: erakundearen jardura administratiboa (langileak, kontratazioa, zergak...). 3. Legitimazioa: Kontratu, estatutu edo lege bidezko harremana betetzea. 4. Hartzaileak: administrazio eta erakunde publikoak eta banketxeak. 5. Eskubideak: atzipena, zuzenketa, ezabapena, tratamenduaren mugaketa, aurkaratzea, eramangarritasuna eta onespenean atzera egitea, lege ezarritako baldintzetan. 6. Datuen jatorria: administrazio eta erakunde eskudunak, eta interesdunak. 7. Informazio osagarria: www.defensornavarra.com webgunean kontsultatu daiteke (pribatutasun-politika).

Datuen babesari eta beren eskubideak erabiltzeari dagokionez, interesdunek hona jo dezakete: Nafarroako Arartekoa helbidea: Arrieta 12, etxabea, Iruñea (Posta-kodea: 31002), telefono zk.: 948 203571, helbide elektronikoa: info@defensornavarra.com.

